

**EUSKAL HERRIKO LURRERRIEN ETNOGRAFIA ETA  
ANTROPOLOGIA SOZIOKULTURALA. LEKEITIO - OLETA:  
LENIZ URKIAGA, MARIREKIN ELKARRIZKETAN**

APALATEGI BEGIRISTAIN, JOXEMARTIN\*

\* Antropologoa eta Euskal Herriko Unibertsitateko Donostiako Filosofia eta Hezkuntzen Zientzien Fakultateko irakaslea

## AURKIBIDEA

	Orrialdea
Sarrera .....	51
Lekuan Lekuko Ikerlana. Lekeitio Oleta: 1984.08.10.4.16,15/17,50 .....	53
● Leniz Urkiaga, Mariarekin, Mutis Baserrian .....	53
● Gabiola Odiaga Mariaxunek Bere Amona Leniz Urkiaga Mariarengandik Jasotako Trikitixa Kantu Grabatuak Eta Berak Transkribatuak .....	55
● Urrungo ikustaldirako .....	57
● Elkarrizketa Grabatua Eta Hitzaldata .....	58
Bibliografia .....	99

## SARRERA

*Bermeo 4* aldizkari aipagarriko egin nuen idazlanaren segidakoa da hemengo hau. Itsaserriei buruzko bildumari hasera ematen zion *Bermeo 4* aldizkariko nire idazlanak, izenburu hau daukelarik: “Euskal Herriko Herri Arrantzaleen Etnografia eta Antropologia Soziokulturala. Ondarru”.

Gaurko idazlana ez da euskal arrantzale herri mundukoa, nahiz eta honeri ere uztartua egon hein batetan. Gaurkoa nire beste idazlan batekin batera sartu behar da. Gure euskalzale haundi haundia eta ikertzaile on eta gehiegitan ahaztuegia edukia izan zen Aingeru Hirigarairen omenerako edo *In Memoriam* delakorako egiteko eskatu zitzaidan idazlanarekin lotu behar da, hain zuzen. Hau da naparraren omenez egin nuen idazlanaren izenburua: “Euskal Herriko Lurrerrien Etnografia eta Antropologia Soziokulturala. Ataun-Aia: Agirre Josemarirekin Elkarrizketan”.

Bi bilduna luze izango dira arrantzale eta lur herriei buruz daramatzadan hauek. Gainera, beste bilduma berri batzu ere ari naiz gertatzen. Hasera ematen diedanean hauen gain berri gehiago emango dut.

Guzti hauekin egin nahi dudanaren helburua ere idazlanak argitartzen nihoan neurri bereberean ematen joango naiz. Izan ere nik ere Eusko Ikaskuntzaren lema nahi dut nirea egin: “Asmoz eta ekitez”.

Beraz, irakurlea errez ohartuko da, hondokoa irakurtzarakoan, idazlanak ez duela izenburuan esaten duen guztia betetzen. Baina, lehenxego esandakoagatik, badaki bildumaren haseran nabilela oraindik, eta ikerkuntzak eginala eta argitaratuala hurbilduko naizela izenburura. Hori da, behintzat, nire asmo bizia.

**LEKUAN LEKUKO IKERLANA - LEKEITIO OLETA:  
1984.08.10.4.16,15/17,50**

**Leniz Urkiaga Marirekin, Mutis Baserrian.**

Donostiatik Lekeitiora gaur goizez Jose Zugastirekin joan naiz, honen autoan. Bazkaltzera Oletako Eperdimendi jantetxera etorri gara. Ondoren, hemengo emakumezko zerbitzari gazte-heldu bati galdetu dio Josek, bere ezaguna bait zuen, ea Oletan adinezko pertsona informalariren bat ezagutzen duen nik berarekin elkarrizketatu egin nahi dudala eta. Berehalaxe eman digu aldameneko baserriko, Mutxizko amona Mariren berria. Oso hiztuna, alai eta gauza asko lehengoetaz dakiena dela esanaz bidali gaitu delako baserrira.

Eperdimenditik baserrira iristean, karretara edo bidetik horma bate-tako ate ireki haundi batetik sartu behar da, eta besterik gabe Mutxiz baserriaren etxeurrean aurkitzen gara. Lekeitiorantzago dago baserria, metro batzutara. Bizkaiko baserrietan ikusi ohi den itxurako edo antzeko karrea dauka, arkuan egindako sarrerarekin. Hantxe dago gure Mari, eskubiko aldetik, sarrera begira gaudela. Eserita. Mahai bat bere aurrean, non bere eskutako lanaren zatia ipinita dauka, gantxilozko oheazala edo alegia. Gantxilon ari da. Uleak librean dauzka, piskabat banatuak, erdi gris-zuri erdi beltzak. Aurpegi borobila, gaztea eta garboduna. Ikusi gaituenean, Jose eta ni, begiratu digu arreta haundiz eta lasaitasun guztiz. Karre barneagoan gizonezko heldu-heldu bat dago. Mariren semea edo suhia izango da. Honi esaten dio Josek nola Mariasunekin egon nahi dugun. Hau, etxeko alaba, andereñoa omen da Epermendiko emakumezko zerbitzari gazte-helduak esan digunez. Bere alaba dela gero jakin dugu. Segitxuan alabari esaten dio etortzeko. Agurketak eta abar egin ondoren, gure benetako asmoa Marirekin ni elkarrizketatzea dela agertzen diegunean, elkarrizketan hasten gara Marirekin gu biok eta etxeoak, ama ere agertu delarik. Laster, ordea, Mari eta biok bakarrik gelditzen gara. Josek aldegin du Lekeitiora. Aitak eta amak heuren lanetara. Mariaxun, geroxeago, gurekin gelditzen da baita ere.

Elkarrizketa grabatzen dut. Bideko autoen zarata asko entzuten da. Pena!. Marik aguro hitzegiten du. Batzutan pentsatzen dut transkribatzerakoan lan haundiak izango direla. Oso hitzun atsegina, azkarra eta aurrelaria da Mari. Bizitzaren zehar beti aurrera egin duen hoietako bat izan delaren antza hartzen diot. Abesti asko daki. Kontuzaharrik eta mitorik eta antzeko kontakizunik ez daki, ahaztuak omen ditu. Ikusten dut Mari kontalari-kantaria dela. Kantuak ez ditu ahortzi, ez eta ere ahaztuko ia onuzkero.

Mariaxuni bi argazki goitik ekarriarazi dizkio, autoritate haundiz eta samurtasun onaz. Bata, bere senar zenarena, ezkondu aurretikoa. Bestea, bien familia osoarena. Zenbat maite dituen argazkiak gure Marik!. Zenbat!. Lehengokoa imajinaren bidez gaurkotua!

Halako batetan Mariaxunek, elkarrizketa grabatuaren haseraldean, zera esan dit:

- Nik amonaren kantuak grabatuak dauzkat -berak lekeitieraz eta olete-  
raz hitzegiten dit. Ulertu, dena ulertzen diot, baina nik ez dakit horrela hit-  
zegiten eta euskara idatzian honera transkribatuko dut, holakoetan ohi  
dudan bezala-.

- Ba gustora entzungo nituzke -nik-.

Baserri gora igo da eta berehalaxe berritzuli baita ere bere kantu zinta-  
rekin. Nire kasetagailuan sartu eta piskabatetan entzun ditugu.

- Transkribatuak dauzkat.

- A, bai!

- Ekarriko dizkizut.

Folio tamainako bi aniladun koaderno ekarri dizkit. Hoietako batetan,  
biak koadrikulatuak, dauzka kantu grabatuak transkribatuak. Bestean,  
Aulestiko adinezko emakumezko baten kontuzaharrak, Marijunenak hain  
zuzen.

- Utziko dizkizut nahi badituzu.

- Bai, gustora hartuko dizkizut, eta hurrengo ikustaldian berritzuliko.

- Bai, bai!

Eta bere letra errezago irakurtzeko kantu batzu irakurriarazi dizkiot.  
Hitzez hitz idatziak daude eta hemengo fonetikaren arabera. Derioko  
Labairun dabilela esan dit eta harako jasoak dituela kantuak nahiz kontu-  
zaharrak.

Elkarrizketa bukatu eta Lekeitiora berritzuli naiz, Mariaxunek bere  
autoan eraman naularik. Han, berriz, Txakartegi Inaxiorekin elkarrizke-  
tatu naiz, "Soziedadén", Kalea: Arranegi 12an bizi delarik.

Hemen hondoan transkribatuko ditut Mariaxunek bere amonarengan-  
dik jasotako kantuak, trikitixakoak. Baita, hurrengoan, Aulestiako Mari-  
junengandik jasotako kontuzaharrak. Ahalik eta hobetoen egiten ahalegin-

duko naiz. Badezpada, fotokopiatu ere egingo ditut. Boligrafo urdinaz idatziak daude eta gaizkiago urtengo dira.

Ia ordu bete grabatu diot Mariri. Lekeitiar nire ikasle bati eman diot transkribatzeko, 1983-84 ikasturteko lan bat bezala.

*Gabiola Odiaga Mariaxunek Bere Amona Leniz Urkiaga Mariagandik Jasotako Trikitixa Kantu Grabatuak Eta Berak Transkribatuak*

- 1.- Abarketak urratu ta sapatarik ez<sup>(1)</sup>  
Bermion gelditu nintzan oiñeko miñes  
Au dok egijja sortziko begijja  
Iru txakur txiki (oe-oo)ko<sup>(2)</sup> lau librako ogijja
- 2.- Agostuen lehenguan agostuen lehenguan  
San Pedro mendixakua (sic) etxat sekula astuko  
Orduko illuntzekua. Orduko illuntzekua agostu(ten)  
lelengua
- 3.- Andre Marija irailgos Andra Marijairaelgos  
Arraten erremedi(jj)a Neu bere araxe noya  
eitxen espadau eurijja. Eitxen ezpadau eurijja  
Arraten erremedijja
- 4.- San Pedro Santa Klaretan San Pedro Santa Klaretan  
Neska sarrak bentanetan nobijjue topetako  
Satijjago Santanetan  
Satijjago Santanetan neska sarrak bentanetan.
- 5.- Neure nobijjuen ama neure nobijjuen ama  
Asto baton jaube dana astuak ekarrikoutzo etxian  
biar dabena etxian biar dabena neure nobijjuen  
amak
- 6.- Amak eskontzeko diñeust amak eskontzeko diñeust  
neure moduko batekin dotiaemongo daustela  
ollua bosta txitarekin. Ollua bost txitarekin  
neure moduko batekin.
- 7.- Neure kapela makurra neure kapela makurra  
Beti tabernara gura alakon bat(o-e)n itxikot asum-  
berdiren kontura. Asumberdiren kontura neure kapela  
makurra.
- 8.- Bentanan dauen damia bentanan dauen damia  
Begi ederren jaubia Ojala basiñatekez gorputz  
darima neuria. Gorputz darima neuria  
bentanan dauen damia.

(1) Mariaxunek transkribatu bezala nik hemen aldatzen dut.

(2) Mariaxunen letra zihur zihur irakurri ezin dudanean parentesis barnean sartuko dut. Eta - bat jartzen dudanean irakurketa modu bat baino gehiago dagoela adierazteko da, hau da, nire zalantza guztiak.

- 9.- Errekaldian asuna errealdian asuna. Etxeko andra lixuna eun mile sorgiñek erungoalabe errealdian barruna. Errekaldian barruna etxeko andra lixuna.
- 10.- Au da pandero barrija au da pandero barrija Gernikatik ekarrija amar errial pagetako aztala urre gorrija. Eztela urre gorrija au da pandero barrija.
- 11.- Altuan San Antonio Altuan San antonio (sic) Bajuan Madalenia bijjen bitxartian dago txakur Suloko bentia. Txakur suloko bentia bajuan Madalenia.
- 12.- Olgau nai dabenak Karmen egunian Olgau nai dabenak Karmen egunian. Etorri Markiñara illun nabarrian Ai oi ai illun nabarrian olgau nai dabenak Karmen egunian
- 13.- Urkiolara ÷un de sapatak apurtu Urkiolara ÷un de sapatak apurtu Aitxa San Antoniok barrijjak eiñgoitxu ai oi ai barrijjak eiñ-gitxu urkiolara (sic) jun de sapatak apurtu
- 14.- Gora bera lusiak gerrija dinddia / gora bera lusiak gerrija dinddia / kolore suri gorri probentziania / ai oi au (sic) probentziania / gora bera lusiak gerrija dinddia.
15. Oraingo neskatillak tonillo tonillo / oraingo neskatillak tonillo tonillo / Eztago tonillorik maijjanak paño / ai oi ai maijjanak paño / oraingo neskatillak tonillo tonillo.
- 16.- Nabarris Amoroto Santaefemia mendi Nabarris Amoroto Santaefemia mendi aretan iruretan aixi otza sarri ai oi ai aixi otza sarri Nabarris Amoroto Santaefemia mendi.
- 17.- Despedidia data sagose kontuan despedidia Da ta sagose kontuan. Akabatzero noia urrengo puntuan ai oi ai urrengo puntuan despedidia da ta sagose kontuan
- 18.- Eperrak kantatzen dau Arrate gania (sic) Eperrak kantatzen dau Arrate ganian Nesarik ederrenak Allusti aldan ai oi ai Allusti aldan Nesarik ederrenak allusti (sic) aldan



- 19.- Amak emon baleustas amar amesiko amak  
 emon baleustas amar amaseiko eskonduko nitzela  
 ude barrirako ai oi ai ude barrirako amak  
 emon baleustas amar amaseiko.
- 20.- Gorengo gambarara (sic) bidia labana (bis)  
 Topiñan sartu jaku mutill barrabana  
 ai oi ai mutill barrabana gorengo gambarara  
 bidia labana.
- 21.- Tiriki tauki tauki malluaren otza (sic) tiriki  
 tauki tauki malluaren otza. Amalau argin  
 baño oba dok arotza ai oi ai oba dok  
 arotza tiriki tauki tauki malluaren otza.

Eta honako beste kantu hau ere Mariaxunek bere amonarengandik jaso du, doñu desberdin batekin:

amar mandamentuak / bedratzi ordenamentuak  
 zortzirak dira seruak  
 Sasp sakramentuak / sei argilerijjuak /  
 Jesukristoren bost llagak bost /  
 Lau ebanjelistiak lau /  
 Iru triñidadiak iru / Erromako altarak bi /  
 Gure jauna bera da bat / berak salbauko  
 gaitu

### **Urrungo ikustaldirako**

Hil honen azkenalderako edo datorrengoan haserarako berak luzatu dizkidan kantu koaderno biak berrizuliko dizkiodala agindu diot Mariaxuni.

Mariri, berriz, esan diot ikustaldi hartan argazki batzu aterako dizkiodala eta beste elkarrizketaldi bat ere egingo dugula. Baietza, parrezka, eman dit.

## Elkarrizketa Grabatua eta hitzaldatua

Hemen hondoan ohar batzu elkarrizketa irakurtzeko:

- Baserria: MUTIS
- AB,jm. : APALATEGI BERISTAIN, Joxemartin  
(galderagilea eta grabatzailea)
- LU,m. : LENIZ URGIAGA, Mari  
(amona, 90 urtekoa)
- GO,ma.: GABIOLA ODIAGA, Mariaxun  
(biloba, 20-25 urte bitartekoa)
- Transkribatzailea: ERKIAGA AMILLATEGI, Agurtzane  
(21 urtekoa, lekeitiarra)
- Elkarrizketan zehar, orriaren ezkerreko aldetik bi zutabe zenbakidunak agertuko dira. Zutabeen goi goian, berriz, Barandiaran Josemielen “Galdeketa etnografiko batetarako gidaliburua”-ri dagozkion honako hitz laburtuak GEG (ikus, gazteleraz eta euskaraz in *Obras Completas* 21, 1983, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca. Nironek euskaratua dago egi-learen oniritziarekin) eta galdeketa harentzat Barandiaran Joxemielek egindako “Apéndice a la encuesta *Etniker*” delakoari dagokion hitz laburtua E (Ikus in *Euskaldunak - La Etnia Vasca*, 4, 1984, Donostia: Etor).

Horrela, nire etnografiatzko galdeketaren barruan gainera Barandiaranena agertzen dut. Bilduma honen eta bere antzeko besteen jarraipenean zuzen zuzenean mintzatuko naiz puntu honetaz.

## GEG E

- AB.jm.- E... izena nola da?
- 1-4 LU.m.- Maria Leniz... Urkiaga
- Ab.jm.- Eta nun jaiotakoa?
- Lu.m.- Mendixen
- Ab.jm.- Zein baserritan?
- LU.m.- Branduenie
- AB.jm.- Hori da, oraii...
- LU.m.- Ixan zara sekula Mendixen?
- AB.jm.- Izan naiz
- LU.m.- Ba..., lelengo lelengo gora goiz, egoizu bentani da Brandonia nun dauen (ez da entzuten ondo)... Mendixa, ari ariñao, arintxuago, Santa Luzixa pasau... da lelengo lelengo kamiño eskiñan ba... alboratxuao daon etxin jaijjo. Da...
- AB.jm.- Hori da.
- VI.2 18-19 LU.m.- Hamalau urteaz krijjara jjun de... zazpi urte eñ nebazan tioaz da tiaaz, Eluxeta baakixu, ez takixu Eluxeta nun daon?
- AB.jm.- Ez, ez
- LU.m.- Santa Kataliña?
- AB.jm.- Hori hemen...
- LU.m.- Farola?
- AB.jm.- Hori Lekeition?
- GO.ma.- Bai, farola, farola
- LU.m.- Bai farola
- AB.jm.- Bai, bai
- LU.m.- Bai.... itxasoko farola
- AB.jm.- Horia bai
- LU.m.- Haixe baño pizkat onatzatxuao, zazpi urte hantxe tioaz da tiaaz
- AB.jm.- Egin zittuzten (= ziñuzten), hori da.
- LU.m.- Krijjara
- AB.jm.- Hori da
- LU.m.- Hantxe bixi
- AB.jm.- Zenbat urtekin esan duzu?

**GEG E**

LU.m.- Hamalau urtegaz... krijjara, tioana ta tiaana, da hoei urte edo hoetabat urterarte hantxe eon, egon... biharra ein sendo! da soldatia azkenengo urtien... berrogeta hamar ogerleko, entendi u on...!

AB.jm.- Berrogei eta hamar ogerleko

LU.m.- Oorleko!

AB.jm.- Hori urtekoa ala...

LU.m.- Urte guztikue!, da jjantzi hurek

AB.jm.- Bai, jan da jjantzi...

LU.m.- Gaur o... bi mille eta hiru mille peseta jjun barrera ta tabernan irabazten dabez

AB.jm.-....

LU.m.- Baña on o... hiruroeta hamar urte... Zemat urte?... Ba... hirurogeta... hamar hamabost urte ixango dire gero. Hartzen dau berbie? -grabagailuagatik galdetzen dit-

AB.jm.- Bai, bai! Lasai, lasai, lasai! Ez, zuk esandako kontu guztiak bestela gogoratzea oso zaila da, oso zaila da!

LU.m.- Ba... holantxerik bixi

AB.jm.- Hori da

LU.m.- Mendijjen da ardi zaiñe

AB.jm.- Hori...

LU.m.- Lengusikiñ da gero e lengusuaaz da. Makiñatxu bat lapurreta be bai e... ikuk eta ordun o... eziñ, ezeben izten. Entendirukozu...

AB.jm.- Bai, bai!

LU.m.- Da lengusuk eta bijjok ardijjak altzau, da ha bajatu ni ardijjekiñ, da okaranak edo... kerixak edo... aber tiori ta tiari atrapau ta mendijjen jjan da

AB.jm.- Baita, baita

LU.m.- Eitten genduzen horrek e!

AB.jm.- (Barre egiten du)

LU.m.- (Barre egiten du)

AB.jm.- Garaien garaiko gauzak, e?

LU.m.-Bai...!

AB.jm.- Hori da!

## GEG E

LU.m.- Sarri esaten dot nik..., da egun baten e... abadia eon zan, Lekittoko Don Pedro, honbe bixi da, haur han, andra bateana etorritte da... konbertsaziñoie atara genduen, ba lapurretan eittiina, da lapurretan... goixin sei tta erdijetan konpañiako mezia entzuten, illunin gero, mendire jjuteko, da... etxerutzien... hortutan ba heldute, han juzilloien helduta ezta?, hikuk eta matsa ta, zelan eitte geuntzaun. "Uuuh! joialabi, triparaku libre da". (Barre egiten du)

AB.jm.- (Barre egiten du)

LU.m.- "Triparaku libre da"

AB.jm.- Bai, hori da

LU.m.- Holantxerik

AB.jm.- Eta han e... artzai garai hartan baserri guztietakoak ibiltzen al ziren?

LU.m.- Ez, Mendijjen geu geukezan, Ipestar partetik beste batzuk beukezen e ardijjek, baiña... Eluxeta da, bakar bakarrik, hon zerria dago han

AB.jm.- Zerria, bai

LU.m.- Bai

AB.jm.- Bai, bai, bai

LU.m.- Baakixu nun daon...

AB.jm.- Bai, bai, bai

LU.m.- Baserritik on o... ijja atrapauta dauko, nik ez tot ikusi baña

Go.ma.- Ni pez

AB.jm.- Baita, baita

LU.m.- Ba... hantxe. Hainbeste ganadu kortan da... biharra ta... goserik ez e, sekula ez tot pasau!

AB.jm.- Eta hori e... ardien gorabehera nola egiten e... zenuten?

LU.m.- Ardijjek batzen da? Jesus! Makiñatxu bat koño esan dot nik, ardijjak be deibala kootza esnetzara ta... (barre egiten du), da egun baten pasau jjatan, ardiesni ekarte eban haunaxe, Allustiako batek tabernara, zemat kobraten dabe orduen? On hogei oorleko litrue gatzatue eitteko, da... ardiesnin alakua ta beutzon gixonak esni neurtzen da... "baaai, neuk horrenbeste pagau esnie, ikusiko bazendukie zelan batzen dan, jjan be ezenduke engo!", esan neban, da... "eee, eee, horrenbeste ez!", gixonak. Da... "gehijjao horixen

GEG E

baño be, txixe be igual da..., korotzamarra esnetzara sarri da gero pasau, da ikusten ez dana jjan ederto". Zelako barriek!..., ondo eiban

AB.jm.- (Barre egiten du)

LU.m.- (Barre egiten du)

18-29 AB.jm.- Eta zenbat ardi euki zenituzten?

LU.m.- Ai, ehun da piku euki genduzen

AB.jm.- Bai, eta zu.... zeu zenbat urtekiñ hasi ziñen ardi zaintzen?

LU.m.- Ba..., neskatan jjun nitzen da... umiek ixaten giñian ardi zaintzekuk

AB.jm.- Zenbat urte?

VIII: 5-14 LU.m.- Hamalau urte hara jjun nitzenien... kolekijjotik 11-59 urten... da...

AB.jm.- Da kolegioa nun e.. hemen?

LU.m.- Lekitton... Lekitton lehiñ eon zan kolekijjue, ba... neskana bakarrik, monjak eoten zirien... da... zer esan haur, kuarta terzera ta edo... klase txikixe ta klase handixe, euskera eitxe zan batzuk, monjja bat euki genduan Sor Adelaida kastellanie da... hantxe, kuartan nebillela urten eiñ neban, da orduntxe... gantxillue, kaltzerdijja eitten, mantoiak eitten da... bordauten be bai, bastidora be haunaxe ekarri neban gero, e? On o... da gero eskondu nitzenien, *adios Lucas!*, danak amaittu. *Otra vida!* (Barre egiten deu)

AB.jm.- Orduan beste bizimodu bat

LU.m.- Bai, txarraue! Da halantxerik, beijjak batzen da... uff! hantxe, bijjek, goserik ez e?

AB.jm.- Bai, da zer jaten zenuten?

LU.m.- Haaan, edozer han, frutia harek Ondarruan ixaten zirian karruaaz tio ta tia ta... amama nik eneban baña... amama zarra euan bertan Berrittukue, Berrittuko alabia zan, da... labaku ta... artue,, tremesak, ogijje, da... gero sagar pillue erreta... da... edozer ardiesnie, talue... zeziña ta txarrijje..., goserik ez! Ondo jaten gendun e, baserriko jjatekue

AB.jm.- Baita, baita!

LU.m.- Baña ondo!

AB.jm.- Baita, baita. Da han e..., Mendexan bertan...

LU.m.-Mendixen e..., Mendixen be bai ondo, baña ez e...

**GEG E**

- VIII: 5-14 AB.jm.- Da han Mendixen eskolarik eta ez zan?  
 11-19 LU.m.- Bai, baña maixu bat eon zan sakristaue, Mendixen ez euan orduan beste eskolarik, sankristaue!  
 AB.jm.- Da neska eta mutillei?  
 LU.m.- Danak nahasten da bera tabernara jjuten zan... da gero guk u... han goijjen olgau ta etorritakun u... irizallaaz, hau eitten gustatzen jjakon asko... (eta bere eskubiko eskua- rekin irizillaaz jotzerakoan bezalako keinua egiten du)  
 AB.jm.- Bai, edatea?  
 LU.m.- Sankristua zaharra  
 AB.jm.- Eta... egunero...
- VIII: 20-28 LU.m.- Abadie gitxitten etortzen zan, Don Tomas, gitxitten etortzen zan. Doktriñie edo... zeozer  
 AB.jm.- Eta zein tokitan erakusten zizuen maixu horrek, zein eskola edo... zer?  
 LU.m.- Kontzijjuen, Aiuntamientuko saloien,... bertan..., ta... hantxe  
 AB.jm.- Da goiz da arratsalde egunero?
- VIII: 164 LU.m.- Beti, ixaten giñen, goixin be bai da arratsaldin be bai da... sartu orduko elixapian olgetan ibili, kalaoka ta... aze- luztelka ta... hantxe denporia pasau. Honei esate eutset ba, domekak guriek zelakuek ixaten zirien, bezpetara jjuen, biz- perak eta errosajjue, ordun on ez e... txokolate ta ogirik jja- terik, ez euen, da... handik urtendakuen mantzeliñatan, mantzeliña sasoie, baña neska ta mutil kuadrillie, da atrapa- ten genduna..., frutie edo halakue... da holantxerik lantzin leku batera, Baurdora... Paure... da... leku askotan, da are- maittakun edo illundutakuen etxera  
 AB.jm.- Hori da, beranduago ibiltzerik eta...
- VIII: 39-55 LU.m.- Baaa! beranduao ama geurie, ze esaten dot? Hau- rrieri esan zelakua nazen, gabien gabaaittik  
 GO.ma.- Ze esatezu ba? (Bere bilobak galdetzen dio)  
 LU.m.- E?  
 GO.ma.- Ze esatezu ba?  
 LU.m.- Gabin dabixenaittik, edozer nik, baña ez taukat penarik, e!  
 AB.jm.- Bai  
 LU.m.- Baña ordun iñor be esan ibiltzen e... ongo modun

**GEG E**

- AB.jm.- Bai, hori da, hori da
- LU.m.- Da holantxerik, Lekitton hasi gero giñinian, pizkat hasittakuan be... bederatzijjetan amaitzen zan musikie ta etxera ariñ aringe
- VIII: AB.jm.- Baita. Eta... eskolan zer ikasten e... zenuen?  
11- LU.m.- Han e... kolekijjuen?  
19 AB.jm.- Han ez e... zera Mendixen
- 20-38 LU.m.- Mendixen, e, doktriñia ta... hori tabli ikasi genduan danok buelta bueltan ipintten genduzen, dos por una dos, dos por dos cuatro, danok batera kantau, da halantxerik ikasi, doktriñie...
- AB.jm.- Euskeraz doktriñie?
- LU.m.- Nik erdera ontxe be eztakitt!
- AB.jm.- Baña han euskeraz ala erderaz erakusten zizuen Mendixen?
- LU.m.- Tabli ikasten gendun holantxerik, bestela, euskera, han ez da erderarik eitten da
- AB.jm.- Baita, baña maixuk e... bazekien euskeraz?
- LU.m.- Erderarik ezekijjen
- AB.jm.- Da nungoa zan ba maixue?
- LU.m.- Bertakue, sankristue zan da
- AB.jm.- Bertako sankristaue
- LU.m.- Bai, han eztao ezebe
- AB.jm.- Ezkondue?
- LU.m.- Bai, ume pillo galanta eukan, Ameriketan ondiño ez takitt bixirik badao ala ez padao
- AB.jm.- Baita, baita. Eta doktriñie ta gogoratzen dezu zer-bait oraindik?
- LU.m.- Bai, ondiñoko, ontxe be... Salbi ta, Kredua ta, mite-rutarijja, baña zuen moduan ez gero?, antxiñako modun baño
- AB.jm.- Hori da
- LU.m.- Erresarijjuak erresetan ikasi tte... olantxerik bixi. Baña gaur diferente
- VIII: AB.jm.- Gaur esan duzu... baita txikitan e... ipuiak eta  
141- hoiek e... han Mendixen ikasitakoak  
163



## GEG E

LU.m.- Bai, ezebez, horrek antxiñakuk, o...! ezebez

AB.jm.- Ia bakarren bat e... gogoratzen dezun...

LU.m.- Antxiñakuk o... ezebez, geure kantak eta ezebez, aittitak esateuzkan ze... sorgiñenak eta iñuzentekerijjak

AB.jm.- Bai, bai

LU.m.- Sorgiñek e..., esate eben han a... Berrittura jjoin bide baten sorgiñek eoten zirila latro zilluetan data... hola-koxe tontokerijjak

AB.jm.- Da ez tezu gogoratzen?

LU.m.- Zeiñ? Ipuñik? Nik ez takitt ipuin konturik, horrek kantak ikesteko ba... afana jjantzan ikasteko ta... antxiñe horretxek iñuzentekerijjak, iñuzentekerijjak ez, toketan danin toketan dan moduen, entendiruten dozu?

AB.jm.- Hori da, hori da, hori da

LU.m.- Toketan danien toketan den modun

AB.jm.- Hori da. Da zuen aitte zanak e...

I: 105-121 LU.m.- Gure aitte gaztetan hil zen, hirurogeta bederatzi urteaz kanzerraaz, kanzerra etorri jjakon...

AB.jm.- Bai

LU.m.- Da hil zen entseide, hontxe San Iñazio eunian edo medikuana jjun da Santo Tomas egunin hill, denpora gitxi eiban sarratu jjakon da...

AB.jm.- Harek ipuiñ asko kontatzen zizun?

LU.m.- Aittak bapez, aittittak baño

AB.jm.- Aittittak

LU.m.- Aittittek

AB.jm.- Nungoa zan aittitte?

LU.m.- Etxekue

AB.jm.- Nola zun izena

LU.m.- Jose

AB.jm.- Eta apellidue?

LU.m.- Leniz

AB.jm.- Leniz baita ere

LU.m.- Neure lentxe Leniz

AB.jm.- Hori da

**GEG E**

LU.m.- Da... Nabarnixkue eban ama

AB.jm.- Nabarnizkoa...

LU.m.- Gabikagojeaskoa ez, Gabikagojeaskoa ezeban, Ibareguren..., Mendikoetxebarria

AB.jm.- Baita eta...

LU.m.- Abadia eban lengusue, Mendixako eune

AB.jm.- Baita

LU.m.- Don Tomas Ibareguren Mendikoetxebarria da. Aitte gurie zan Leniz Mendikoetxebarria. Haren ama Nabarnixkue, da beren arreba bat pe Nabarnixen eon zan

VIII:  
141-  
163

AB.jm.- Eta harek orduan ipuin asko kontatzen zizun?

LU.m.- Aittittek bai

AB.jm.- Eta...

LU.m.- Azkenian esate eban ipuiña esandakun ze... "honek honan badire alantxerik ixan daixela" ta... akaboo eitte euskun, baiña guk kaltzerdi eitten da... ikasten e... ordun afana eukitten gendun, godua eitten da.,

AB.jm.- Eta aittek (= aittittek) e... ipuin hoiiek e... noiz kontatzen zizun?

LU.m.- Umik giñenien, baña...

AB.jm.- Eguneko zein sasoitian...?

LU.m.- Neguen

AB.jm.- Neguen

LU.m.- Bai, udan ezta eoten astirik baserriñan, baña ongo moduen ez euan ordun, ordun bederatzijetan edo... ora jju- ten zan, argirik be ezeuen, petroliue... baakixu zer dan?

AB.jm.- Bai, bai, hor, e, suekin piztuta, bai!

LU.m.- Bai!

AB.jm.- Hori da

LU.m.- Da...

AB.jm.- Eta negun zein tokitan...

LU.m.- Etxien! Aik iñora jju- ten itxi?

AB.jm.- A, ez?

I: 18-29  
105-121

LU.m.- Geure amak eta? Nik ondo goguen dauket kaltzerdi eitten gabetan ixaten giñien, da gabe baten euki gendun geuk pe... da mutillek be etorten zirian da, hantxe baakixu, hala-

## GEG E

kua, da gure aittak entzun zaratie, da... alboku etorri jjeten nien bille itxi ez jjeten, sorgiñe ixan baniz tellatutik urten da jjungo nitzan baña... baña gero penarik eztauket e...

AB.jm.- Bai, hori da, hori da

5-14

LU.m.- Gu haulantxerik hasi giñin da...

AB.jm.- Baita, baita, hori da, eta zure aittittek e... gauza hoiek denak norengandik ikasita esate ahal zun? (= esaten zitun)

LU.m.- Baserriko gauzak, harek be hantxen

AB.jm.- Baita, da bera lanean nun ibili zan?

LU.m.- Etxien

AB.jm.- Beti?

II:  
47-172

LU.m.- Larogeta bi urteaz hil zan da, baai, hontxe datorren hillien e... setienbre, oktubrin ixango dire... urtiak, aittittak naumia eisten daola eñ jjakon alakue ta, kaix geratu bijamonian

AB.jm.- Orain zemat urte?

LU.m.- Jesus! asko!

AB.jm.- Berrogei bat?

LU.m.- Bai gehijjao be, berrogei, bai hirurogei be ixango dire, da amama be euki gendun, habe etzan holako... gaixorik edo... eoten zan, da ama hil zen larogeta zazpi urteaz

AB.jm.-... eta... eta

LU.m.- Da... tia bat hil jjeten larogeta hamalau urteaz, da beste tia neu krijjara eon nitzen lekukue larogeta lau urteaz

AB.jm.- Danak zaharrak ez?

LU.m.- Harek bai

AB.jm.- Eta aittittek e... lana beti baserrien egin zuen?

LU.m.- Beti baserrijjen, aittittek be bai

AB.jm.- Da... zer lan klase egiten zun?

V  
III

LU.m.- Artue, inddiarra, hamentxe geu lentxe

AB.jm.- Eta ardiekin da iñoiz?

LU.m.- Etetete! Mendixen eztao lekurik ardijjek eukittek

AB.jm.- Ez, eta ikatzean eta holan?

LU.m.- Ez, ta, ta, ezta, ezebez, plazakue plazarako da..

AB.jm.- Plazakue Lekeitiora?

**GEG E**

LU.m.- Bai, esnie, arrautzak eta horretzek

AB.jm.- Baita, baita, eta... amamak e... ez ahalzun ohiturarik e...

LU.m.- Amamarik eneban ezautu, amama... ohien zan sarritan, Maria Agustina Goikoetxea

AB.jm.- Mari Agustina Goikotxea, da nungotarra?

I:  
122-  
133

LU.m.- Bertaku, ha... etorri zen handik, baserrije baserri-  
ttik antxiñe, da ha etorri zen handik e... gure etxera, da gure  
etxeku jjun zen ha etorri zen etxera lengusuaaz

AB.jm.- Ordun, truke?

LU.m.- Bai ba, antxiñako tratuek

AB.jm.- Tratuek

LU.m.- Antxiñe... etxe jauntzaku etxe jauntzara ta...

AB.jm.- Baita, baita. Eta zure amak, ama zanak?

LU.m.- Ama Mendixa elixaldeku zan

VIII:  
141-163

5-14 AB.jm.- Eta harek ez ahal zun ohiturarik ipuiñaik eta holako  
gauzarik?

LU.m.- Harek errezau

AB.jm.- Harek errezuak, eta gogoratzen ahal dezu errezo-  
ren bat edo harek erakutzitakoek?

VIII:  
20-38

LU.m.- Erresajjuk eta, erresaten da?

AB.jm.- Bai

LU.m.- Jesus!!! Errosajjua hasitte, erosajjuek denpora gehi-  
jjao, errosajjuko misterijjuak esaten

AB.jm.- Eta gauero?

LU.m.- Gauero erresajjue

AB.jm.- Zein ordu aldean?

LU.m.- Afarijja eitten daben artien bestiek erresajjue erre-  
sau

AB.jm.- Eta hori zein ordutan izaten zan?

LU.m.- Neguen, da udan be bai erresajjue gero, e, nik erro-  
sajjua hasten e... Jesus, hasten zan erresajjua erresatzen, has-  
ten... bueno, amaittu bez!. Da gu gogaik ein dde, hasieran be  
ordubete gero, e! Millez halakorik, horma zuloko arrato  
guztiari be erresate eutsan harek (barre egiten du)

AB.jm.- Horma zuloko?

LU.m.- Arratoiari

## GEG E

AB.jm.- (Barre egiten du). Hori nola...

LU.m.- Ba, erresajjue erresetan gure amak ederto ekijjen, eo!

AB.jm.- Eta nun ikasita?

LU.m.- A! Eztai pa ni nun, elixan edo... ahizta bat monja euki eban Bilbon be eta...

AB.jm.- Bai, bai, da elizara ere asko joaten zan ordun?

LU.m.- Beti, gurian elixarakuak ixan diz. Ontxe ezta elixara jjuten, ze antxiña elixara...

AB.jm.- Eta errosarioko hasera eta hori gogoratzen dezu?

LU.m.- Bai, ondiñoko bai

AB.jm.- Bota, bota, entzuteko

LU.m.- Zeuk burla eitteko gero neuri?

AB.jm.- Ez ta burla eitteko Maria, ikasteko, benetan ez ta burla eitteko

LU.m.- (Ez da entzuten ondo)... Kurtze Santuaren... Errosarijjo Santua hartzen dao?

AB.jm.- Bai, bai, hartu, hartu (bai!)

LU.m.- Errosarijjo Santua esateko modua Ama Birjiñiaz berba eitten hasteko siosuz siaten neure Jesukristo Jauna bij-jotzetik ixan da, elixa latiñak diñokana domine labiameak bakarrik ixango goitu, goitu, ezpanak izango goitu, zeure alabantzak, begira zaite Jauna geure sokorrure ordua laster gure lagun eittera. Gloria Aitiari, Gloria Semiari, Gloria Espiritu Santuari, hasi dan zalez ixan dadila orain eta sekulako denpora guztitan amen. Neure Ama Birjiña soberaniaz zeruko ta lurreko erreña andria, Aita eternoaren alabia bereinkaria seme debinoaren esposamille, ofreziduten dotzat Errosarijjo Santua, berroeta hamar Ave Marijja, bost Pater Noster, bost Glorijja,... eta printzipe guztien katolikoei... Da orduntxe hasi:

- 5-14 Ama Graziakua, Ama Errukizkua, gorde eta zaindu gaixuz hartu gaixuz herijjotzako orduan; da, holantxerik eta ez takiraz harek misterijjuak ahaztute daukaraz on

AB.jm.- Eta bukaera?

VIII:  
20-38

LU.m.- Amaittu?

AB.jm.- Bai, amaitu nola izaten zen?

LU.m.- Amaittu Kyri Eleizonak erresautakun o!... hango

GEG E

Santuari ta horko difuntuari tte... erresau ta erresau eñ da gero... berenkatu ta alabau izan deilla, ez takitt hau zelan be

AB.jm.- Eta hori erresarioa esaterakoan bakoitza bere lane-tan?

LU.m.- Baaai

AB.jm.- Eta... Kyri Eleizonak eta esaterakoan belauniko eta bai ala...

LU.m.- Ez, han eskutakua eitten ekitte eutsaun, belauniko ez, baña Kyri Eleizonak pe ederto!

AB.jm.- Ederto!

LU.m.- Bai!

AB.jm.- Hasera gogoratzen dezu Kyri Eleizonak?

LU.m.- Kyri Eleizonak? bape on erresaten dirazen moduen

AB.jm.- Baina... hark e...

LU.m.- Geuk ontxe lentxe erresate ebazan

AB.jm.- A bai! Ia hasera pizka bat

LU.m.- Kyri Eleixon, Christe Eleixon, Kyri Eleixon, Christe Eleixon, ene! on o... plantauko naz nerbiosa

AB.jm.- Lasai, lasai Maria

LU.m.- Eon! Santa Trinita Jesus Deus, Santa Maria, Santa Dijinitris, Santa Birgo birjinum, Mater Kristin, Mater ibiolata, Mater intemerata, Mater imakulata, Mater amabilis, Mater amirabilis, Mater Kreatoris, Mater Salbatoris, Birgo prudentisima, Birgo beneranda, Birgo predikanda, Birgo potens, Birgo klemens, Birgo fidelis, espekulun iustiziaz, sesapidenzie, kausanostelestisie, bas espirituale, basenorabile, base insine debosione, rosa mistika, turis Deirika, donus sauria, peiris arka, estela matutina, salus infirmorum, refujiun pektorun, konsolatis afliktorun, auxiliun kristianorum, Rejina anjelorum, Rejina patriarkarun, Rejina proletarun, Rejina apostolorun, Rejina birjinun, Rejina santo ominun, Anus Dei ki tolis pekata mundis, Anus Dei ki tolis pekata mundis, Anus Dei ki tolis pekata mundis, ora pro nobis Santa Dijinitris.

Oremus: gratian uan kuesumus Domine mentibus nostris infunde ut ki anjelo nuntiante Kristi Fili tui inkarnazionen konobimus per pasionen eius et kruzun a resurrekzionis glorian perdukamus. Per eunden Kristun Dominun nostrun. Amen!

Goguan ez taukaraz ala?

## GEG E

AB.jm.- Dana daukazu, e, eta oso ondo!

LU.m.- Horrek eta, goguan baña gero ahaztu eitten dira, akordaten danien e...

AB.jm.- Etortzen? Baai, eta Agur Maria nola esaten zenu-  
ten?

5-14 LU.m.- Guk, Agur Marijja! Agur Marijja graspetia, Jauna  
zuaz, bedeinkatia zara zu, Andra guztien artian, eta berein-  
katua da zure zabeleko frutua Jesus

AB.jm.- Eta Santa Maria?

VIII:  
20-38 LU.m.- Santa Marijja Jangoikun Ama, erregutu eixu gu  
pekatarijokaittik, orain da beti herijjotzako orduan, Amen!

AB.jm.- Hori da. Eta errosarixua bukatu eta kantau edo  
hola egiten zan edo?

LU.m.- Ez, ez, ez

I:  
37-87 AB.jm.- Eta bazkaltze ere aurretik eta...

LU.m.- Berak erresate eban eta mahaiko oraziñoie ein dda  
aittite bixi zan arte da aittek gero, da gero esku eman be bai

AB.jm.- A!, hori nola zan, esplika hori...

LU.m.- Ez takitt hori esaten, harek e... aittak eta eitte eben

AB.jm.- Baña eskua eman da hori nola zan?

LU.m.- Ba... eskua emate eban aittak ez da? da muneiñ

AB.jm.- Da muiñin

LU.m.- Bai, horrek e... haunatxe (Orain ez daukat gogoan  
nola egin zuen keinu hori)

AB.jm.-Eta... eskua, amak edo?

LU.m.- Aittek, aittek, amarik ez!

AB.jm.- Amarik ez!

LU.m.- Aittak, aittari eta aittittari

AB.jm.- Eta zergatik e... aittak bakarrik edo aittittek?

LU.m.- Aittitte bixi zan artien aittittari

AB.jm.- Bai

LU.m.- Ba... kostumbria haixe!

AB.jm.- Baita, baita!

**GEG E**

- II: LU.m.- Da lehenago ondrak eitten zirian Mendixen be,  
 176-274 baserri guztitan da, eitten zan mahaiko oraziñoie, da geure  
 31-33 aittak be eitte eban, e!. Da hantxe eitte eutsen gixonak be  
 jjun da mun mahaiko oraziñoia eitte ebanari be, kostumbrie,  
 on horrek itxitxa dao, ez tao on holako kostunbrerik
- AB.jm.- Galduta
- LU.m.- Zeupe baakixu hori!
- AB.jm.- Bai, bai, bai!
- LU.m.- On ondrrape ez tao ta... ordun jjaten emon da ta...  
 eitxen zan ezta baña... on ez tao holakorik
- AB.jm.- Eta zuk e... Mendixan hola kantuak eta ikasi ziñuz-  
 ten e... gehienak?
- VIII: LU.m.- Bai, mezi be kantau eitte gendun guk  
 20-38 AB.jm.- Mezia ere bai?
- LU.m.- Baaai!
- AB.jm.- Eta nola kantatzen zenuten?
- LU.m.- On zelan esangotzut ba! Lehenago latinin sartzen  
 zan mezie. (Abestu egiten du). Etinterrapas ominium, bone-  
 boluntatis, laudamuste, benedizimuste adoramuste, grazia  
 sakimus tibi proter mana glorian tua. Domini Deu rezelesti,  
 Deus Pater oni poten, Domine Filiun ijenitun. Baña on o...  
 ahaztuta daukadaz. (Berriro abestutzen hasten da). Pater oni  
 potente, pastoren seli eterre, bisibiliun oniun etinbisibiliun  
 etin unun Dominun Jesus Kristun Filiun Dei unijenito. Da...  
 ontxe horrek baakixu zeuk pe
- AB.jm.- Bai, hori...
- 5-14 LU.m.- Ontxen be nik mezia beti entzuten dot
- AB.jm.- Baita, baita
- LU.m.- Beti ontxe be telebisiñoien, domekan beatzitan egon  
 zan, hori... horrek taozelako
- AB.jm.- Bai!
- LU.m.- Olinpiadak dauzelako, da... datorren domekan  
 hamar da erdijjetan da
- AB.jm.- Hori da!
- LU.m.- Da esa eban nun be on ahaztute daukat baña
- AB.jm.- Eta horrek danak elizan ikasten ziñuzten?



**GEG E**

LU.m.- Baai!

AB.jm.- Hola entzunekin bakarrik?

LU.m.- Baai!

AB.jm.- Da libururik eta hola ibiltzen zifiñuten?

VIII:  
20-38

LU.m.- Mezako liburua be bai...

AB.jm.- Baita, danok?

LU.m.- Han danak erute eben mezako liburua, baña ekarri nebazan baña on o... galdute edo... ez takitt on nun eongo dirazen baña...

AB.jm.- Eta irakurtzen zenbat urtekiñ ikasi zendun?

LU.m.- Nik i... han sei edo zazpi urteaz eskolan hasi tta, da gero hamalau... handik urten da Lekitton o... kolekijuan hamalau urtearte, da erdera ikasi ez!

AB.jm.- Da nola hori? (Barre egiten du)

LU.m.- Ontxe gehijjao, oker edo txuxen on o... ekiñ eutzet ezta, telebisifioin da...

AB.jm.- Bai, bai, ikasita!

LU.m.- Bai, da ordun horrek eta ooon... errebistak eta... beste gauza batzuk (Barre egiten du)

AB.jm.- Hori da!

LU.m.- Errebistak leidu te... bailik ikusitte...

VIII:  
11-19

AB.jm.- Eta zure amak eta aitak irakurtzen bazekiten?

LU.m.- Baaai, aitta alkate be ixan zan da...

AB.jm.- Aitta alkatea zan?

LU.m.- Egon zan alkate be, baaai, baekijjen leiduten da... eskribiduten da dana

AB.jm.- Ta aittittek?

LU.m.- Ez tot pentsetan leiduten ekijjenik edo... ez takitt, nahiko oraziñoiak eitte ebazen baña... aittitta ta buru onekuak zirin

AB.jm.- Aittitte ta?

LU.m.- Neupe buru ez taukat txarra baña... hainkak txarrak (eta bere bi eskuez bi hankak, iztar belaunburu aldean, bigun bigun jotzen ditu)

AB.jm.- Bai!

LU.m.- Hau hainki hau fastidijjata dao-

GEG E

AB.jm.- Bai, bai, bai

LU.m.- Euskijjen, euskijjen baltzixuta daukat gero e (eta ezkerrekoagatik diost)

AB.jm.- Hori ona da ez ta?

LU.m.- Ze, euski, enei! Honantxerik andittutta eukitten ixaten dittut, hamentxe plantau honantxerik puntu eitten da... dana handittutakua, dana jjun jjet, jjausi eifñ nitzen hamentxe da gero urtik ez tabe parkatuten

AB.jm.- Hori da, bestela oso bizkor zaude

II: 1-4 LU.m.- Sano, indiziño bat ez tot hartun de... Jangoikuari  
47-172 eskerrak; jjan ondo, lo ondo...

AB.jm.- Da zure han e... Mendixan e... bizi izan ziñen garaian

LU.m.- On o...

AB.jm.- Periodikorik eta holako gauzarik eta...

31-33 LU.m.- Uuuu, antxiñen ez euan periodikorik

AB.jm.- Radiorik eta holako gauzarik eta...

LU.m.- Ze radijju! Radijjuk eta horrek gero, hona etorritta be geruao ekarri diz

AB.jm.- Eta bertso paperak, eta holako gauzarik ez zan...

VIII LU.m.- Kanta paperak bai!

AB.jm.- Kanta paperak

LU.m.- Jesus! Kanta paperak pai on o... nik ez takitt ahaztuta...

AB.jm.- Da nola?

5-14 LU.m.- Ordun saltzen ibiltten zirien kanta paperak, etxerik etxe santuk pe bai

AB.jm.- E... euskeraz?

LU.m.- Erderaz ez zekijjen baña iñok, aittak pe ezekixen, da aittittak pez da ama pez

AB.jm.- Euskeraz danak ezta?

LU.m.- Euskera eitte eben danak eta...

AB.jm.- Eta nortzuk etortzen zirien hori saltzen, gizonezkoak, emakumezkoak?

LU.m.- Gizonezkuk be baitte, jitanuk eta herrijetan da... saltzen ibiltten zirian kanta paperak

## GEG E

AB.jm.- Ta zu zer horrek e... holakoak e...?

LU.m.- Gero, haratz krijjara jjun nitzanien e...

AB.jm.- Bai

LU.m.- Pentsau bez!

AB.jm.- Holakotatik ikasi zendun e...

LU.m.- Bai, nik hau...

AB.jm.- Da gogorutzen dezu?

LU.m.- Ez, on ez taki nik

AB.jm.- Ez, ez

1-4 LU.m.- Nik hau ona dauket (eskubiko eskuarekin burua seinalatzen du) memoriija be bai

AB.jm.- Burua ona?

LU.m.- Hau be bai, baña hauxe ez (hankak seinalatzen ditu)

AB.jm.- Hauxe ez

LU.m.- Makilliaz ibili biharra...

AB.jm.- Bai, hor daukazu, zure aldamenean, alboan,

LU.m.- E!

VIII:  
39-55

AB.jm.- Albuan hor daukazula makilli, eta han e... zean Mendixen, bertsolariek eta hola... ba al zien? Eta jaiek nola ospatzen ziren?

LU.m.- Jaijjetan aringa aringa hamarretako mezatara ta arratsaldien bizperetara,...k elixia bastante. halakun da

AB.jm.- Urruti bai

LU.m.- Bai, urruti ez baña kamiñue eindde euen e, nire gomunti baño ariñao ein zan kamiñue

AB.jm.- Zu joan baño, nola esan dezu?

LU.m.- Nik akordau baño ariñao kamiñue ein zen, baño kamiño bezinala, eh! kamiño, on o... Madrilaku da ha be

AB.jm.- Baita, baita

LU.m.- Ontxe eon diz bertako pistak

AB.jm.- Baita, baita

LU.m.- Agostun lelungun. Zetan dakazu zu pa?

AB.jm.- Hori da, eta... jaiek orduan goizean meza ta...

LU.m.- Horretxek be buru ona dauko gero, e? (bere biloba-gatik ari zait esaten)

**GEG E**

AB.jm.- A bai, ordun zure antzera dator

LU.m.- Da bihargiñe

AB.jm.- Hori behar dugu ba

LU.m.- (Ez da entzuten ondo) Edozetan!

VIII:  
20-38

AB.jm.- Eta ordun jaietan esan dezue meza goizean, arratsalde besperak

LU.m.- Bizperak

AB.jm.- Eta...

LU.m.- Eta gero illuntzin ba olgau, mutill da neskato alkarrereaz ibili tta kittu

AB.jm.- Eta soñurik eta hola etzan egoten?

LU.m.- Baai, ahuko soñue mutillek, eta neskak panderue

AB.jm.- Nolako soñue? Ahokoa, holan esaten zitzaion?

LU.m.- Ze esaten j jako?

AB.jm.- Holantxerik, ahoko soñue

LU.m.- Ahoko soñue, ondiñoko eongo direz gurien halakuek nuunun

GO.ma.- Ixan leike, baña ez tot uste

LU.m.- Bai, han armarij un daola pentseten dot edo... eoten diren lekun bat

GO.ma.- Bai? (ez da entzuten ondo. Bidea, albo alboan daukagu. Auto eta kamioi zarata asko entzuten da)

LU.m.- Tiok ekarritte, tio Jesus Marik ekarritte

GO.ma.- Ez tai pa

31-33 LU.m.- Da on o... baakixu zer dan obri eitten danien jaurti eitten dire zarra guztik!

AB.jm.- Bai, bai, bai

LU.m.- Da holantxerik, holantxerik!

AB.jm.- Hori da, hori da!

LU.m.- Mundu pasau!

AB.jm.- Bai!

1-4 LU.m.- Makiña batek pena han, hospittaletan medikukiñ da pasate eittu da agumentau en bir, neu be enao konforme baña...

AB.jm.- Ederki, orduan esan duzu gero Mendixa utzi eta tion da tien etxea

## GEG E

LU.m.- Branduenie

AB.jm.- Branduenie

LU.m.- Entendiruten emoixu nun dauen (bere bilobari eskatzen dio hau egiteko nirekin) lelengo, lelengo gora ioten danin dao ha

AB.jm.- Gutxi gorabehera ikusten dut, ni egon naiz bi edo hiru aldiz eta zuk gehiago esplikatuta ere ez nintzake ohar-tuko gehiago, baña gutxi gorabehera ikusten dut

LU.m.- Goratxuao jjun de... horrek zertzuk dira horrek Sabastik eñ dau zanak zertzuk dira harek zurijjek?

GO.ma.- Inbernaderuek

LU.m.- Inbernadero pillue dao bertan beste partetik

AB.jm.- Bai, bai, hori da. Eskuma aldetik ezta?

LU.m.- Ni jaijjetexi dao honantxerik

AB.jm.- Ezkerrekotik?

LU.m.- Beste bat dao barrija eindda albuen, aurreratxauen, da... goratxuauen inbernadero pillue

AB.jm.- Baita, baita

LU.m.- Da alabia daukat Mendizen ezkondate

AB.jm.- Honbre, juaten zea Mendixa?

LU.m.- Noiz ixa nitzen... euastenin, hillen lelengo eunin nitzen konbidau, gabeko hamaiketan edo hamabijjetan, ze ordu zan etxera etorri nitzanin?. Hamabijjek, beori bakarrik euan eskatzin (bere bilobagatik), lobikekarri...

AB.jm.- Ondo, ondo ta...

LU.m.- Erun behorrek eñ genduen ta bertako lobik ekarri etxera

AB.jm.- Hori da, ordun ondo pasatu zendun, eh?

LU.m.- Jjesarritte, esate eusten e... ha ikusten da hori ikusten eruteko bañe... ezez nik ez nazela gauza ta, baserri ederra dauke, eleganti dauke baña biharra ein bihar sendo!

AB.jm.- Bai, bai baserri eutxi... (ez da entzuten ondo)

LU.m.- Bai

31-33 AB.jm.- Lanik e... biharrik ein barik eziñ? eziñ?

LU.m.- Bai, ez tau nahi iñok biharrik eñ, honek eitten dabe, e?. Honek e... patati batzen da, bedar sikatu batzen da, hon-

**GEG E**

txe be eitten dau, gero! Bakin itxi bijjarko horretan (bere bilobagatik ari zait esaten hau)

I: AB.jm.- Eta zenbat urtekiñ ezkondu ziñen?

122- LU.m.- Hogeta bosteaz edo...

133

AB.jm.- Hogeita bosteaz eta zure senarra nor zan?

LU.m.- Justo Gabiola

AB.jm.- Nungoa?

LU.m.-Hementxe jaijjota,...

AB.jm.- Ze izen du baserri honek?

LU.m.- Mutix

AB.jm.- Mutiz

LU.m.- Ekarrixu aitten erretratue... eittittena, goijjin dau, ekarrixu

GO.ma.- Ni enoia (bilobak amonari)

LU.m.- Salan edo eon zan, lenganin i... sartun zirin da

AB.jm.- Mutiz baserria, Gabiola ta ze lan egiten zun, beti baserrian?

LU.m.- Baai, baserrijetik lelengo zarrak eon zirin da gero aitte

VIII: AB.jm.- Harrek ba al zekiñ hola kanturik edo ipuirik edo...

141-163

LU.m.- Ez, holakorik ez! Nire semik, i... bata makiñisti dauket, jefe de máquinas

AB.jm.- Nun?

LU.m.- Lehin ibili zen Persian da be bai

AB.jm.- Bai, bai

LU.m.- Da.. gero handik urten da... Elgoibarren eon zan, baakixu Elgoibarreko barririk?

AB.jm.- Bai

LU.m.- Asme

AB.jm.- As-me

LU.m.- Enpresi edo Asme da gero zeozer pasau zan sarratu edo... atzera itxasora jjun da, hon be itxasun da, da beste semi kapittana dauket

AB.jm.- Oi! Ordun oso itxastarrak ez ta?

LU.m.- Baai, baai, bai, bai, oioioi. Da etxin be eon da; da on

## GEG E

dao, eruben, sei hillabete daroiaz, on hiru hillebete edo daroiaz, itxoten nao etorteko; jjaten gauzala telefoniauztan, lelengo eru eben horra... Islas Canarias

AB.jm.- Bai, bai

LU.m.- Da petroliua ataraten dan lekure edo... gasolla ataraten dan lekure

AB.jm.- Arabiara edo? Bai

## III

LU.m.- Islas Canarias, da on a, baña neuk esan dotzat Jose Mariri. “Ama ez taukat nik han goseripe neuk nahi doten guzti dauket, bakar bakarrik aburrimentue”. Baña itxasun ez tabill, e? Barkun dao ez ta, da egunin han a... berroeta hamar barko sartzen dira han gasolla hartzen, hartzen e... zein barkori ze gasoill bertan ikusten dabe ta haixe eitten. (Bitartean, bilobak amonak eskatu dizkion erretratuak ekarri dizkigu). Hauxen da nire gixona, hauxe zan (Bere senarraren argazkia erakusten dit).

AB.jm.- Aaaa, a! Hau zer da e... ezkondu eta zenbat denborara ateratakoa?

LU.m.- Orduku da hori, ezkondu baño ariñao Ameriketatik etorri zaneku

AB.jm.- Ameriketean eon al zan?

LU.m.- Baaai!

AB.jm.- Zein tokitan?

LU.m.- Boises!

AB.jm.- A, hori da, baita, hemen beste batzukin joan da edo...

LU.m.- Horrek tiuk eta asko eukon Ameriketean, ondiño lengunin ixan genduzan amerikanuak guk,... beonen... nor zan a... bat hontxe hil zen, Flora beonen aitten e... anajjiaaz ezkondu haurkoxie, da haretxen lobia edo... da beren alabak eta kuadrillia euki gendun, Gernikan daukez e... ezaun batzuk eta haretxekeñ etorritta ta... hola, tertzijjokun halakun eon zirian kontuk esaten

VIII:  
141-  
163

AB.jm.- Da hau e... fotografi hau nun ateratakua den bada-kizu?

LU.m.- Ni etorri nitzenien hamentxe eun de! familijja guzti bagaoz gu

AB.jm.- Berak zenbat urte zeuzkan ezkondu ziñetenean?

LU.m.- Horrek hogeta hamaika eukezan

**GEG E**

AB.jm.- Ezkondu ziñetenean?

LU.m.- Horrek hogeta mahaika

AB.jm.- Eta zuk hogeita...

LU.m.- Bost edo...

AB.jm.- Bost

LU.m.- Bai

AB.jm.- Bai, gero zenbat seme-alaba izan dituzue?

LU.m.- Bost ixen da bat hill!

AB.jm.- Bai, eta zure...

LU.m.- Ekarrixu haxe gure erretratua, familijjako erretratua (bere bilobari eskatzen dio)

GO.ma.- Baña... (ez da entzuten ondo)

LU.m.- Hartun da ekarri, ekarri, zarra da baña ekarri, ekarri!

GO.ma.- Gero, gero!

LU.m.- Ekarri hauntxe esan dotzut jjun de, da biharra zutzako be. Barre, honek burla engo dau gero, e?

AB.jm.- Ez, ez burlarik ez Maria, ezta

LU.m.- (Barre egiten du)

AB.jm.- Ezta, ezta, burlarik ein biharrik!

LU.m.- Ikusi geure familijjie, hil ein jkatan...

AB.jm.- Eta...

LU.m.- Zerran eitte eban biharra... da igiria salta ta kokotazurra hausitte

AB.jm.- Aaaa a!

LU.m.- Neu jjun nitzan beraz Bilbora... ahizta bat daukat Bilbon oiño bixirik dao, haretzek lagundu ozten, da bijjamonian semia hill, gixona hil zala... hauntxe agostun hogeta batian dira urtiak, hogeta bi edo hiru, hogeta bi, hogeta bi urte, honetxen amak lau hillabete eukazanin hil zen, hau delikau eoten zan beti

I: 105-121 AB.jm.- Bai eta. Da zure senideak, zenbat izan zarete zuek, senideak?

LU.m.- Asko gu. Honek barriz kantidadiek, Bilbon be lengusu te baaukez

AB.jm.- Baña, zuen familikoak Mendixen, zenbat izan zeate?



## GEG E

LU.m.- Gu, Mendixen ixan gera, ahizta bat hill eiñjjat, etxera exkondute dauene, da nebi hill jjaten soldau jjun de Burgosen, da beste ahizta bat ezkondu zen Bilbora, ta Bilbon bixi de

AB.jm.- Ordun zenbat ziñeten, lau edo... zenbat ziñeten totalean?

LU.m.- Lau ixan giñin

AB.jm.- Lau

LU.m.- Bai

AB.jm.- Ez ziñeten asko

LU.m.- Ez

AB.jm.- Da han familietan gehiago izango ziren ezta?

LU.m.- Bai makiña bat lekutan, baña gurin ez. Hiru ahizta... da nebi giñin ezta, baña nebi hill, soldau jjun da hill en zan Burgosen da... gripi etorri zen da...

AB.jm.- Baita, baita

LU.m.- Ordubete ta erdi...

VIII:  
13-28

AB.jm.- Da zera da... Lekeitiora Mendixatik oñez joaten ziñeten?

LU.m.- Baaai!

AB.jm.- Zenba denbora...

LU.m.- Ah! ordu erdi

AB.jm.- Ordu erdi!

LU.m.- Gaur ordu erdijjan bajatu leike...

AB.jm.- Baña ordun, ordun, zuen garaian?

LU.m.- Ordun be bai, otzari burun dala esnikiñ, ni ez... Mendixan ni ez nitzen eon e... ni Eluxetan eon nitzen

AB.jm.- Bai, bai...

LU.m.- Baña...

AB.jm.- Nun Eluxtan?

LU.m.- Eluxeta

AB.jm.- Eluxeta, hor e... Lekeitioin

LU.m.- Zerria hauntxe daon lekuen

AB.jm.- Hori da!

LU.m.- Baakixu nun dauen han zerrie?

**GEG E**

AB.jm.- Faroko hartan

LU.m.- Baai!

AB.jm.- Faroko hartan

LU.m.- Baaaai!

AB.jm.- Han egon ziñen

LU.m.- Hantxe, hantxe, ondiño ha etxia hantxe dao

AB.jm.- Baña hara joan aurretik Mendixen bizi ziñenean...

LU.m.- Baaaai...

AB.jm.- Lekeitiora ere etorriko ziñen iñoiz?

LU.m.- Baaaai, eskolara be oñez, da eskolatik etxera be oiñez bazkarijja jjaten da, bazkarijja jjan da atzera oñez

AB.jm.- Orduan lau aldiz joan da etorri, eunen lau aldiz

LU.m.- Goixin jjun de euerdijjen etxera, da jjan bazkarijje da jjun atzera ta illuntzin etxera

AB.jm.- Hori da

LU.m.- A...

AB.jm.- Eta hori egunero?

LU.m.- Beti!

AB.jm.- Beti!

I: LU.m.- Hara gure familijje hauxe da (argazkia erakusten  
105-121 dit, bere bilobak goitik ekarritakoa. Poz pozik dago Mari!)

AB.jm.- Ordu erdi ezta? bidean

LU.m.- Bai, hara...

AB.jm.- Ah!

LU.m.- Hauxe da kapittana

AB.jm.- Baita

1-4 LU.m.- Bai, hau hil zana...

AB.jm.- Bai horrek kokotean e... jota, zerrak edo... hor ezta? jota

LU.m.- Bai! Hau gixona, hau alabi Mendixen bizi dana, da hau horren aitte

AB.jm.- Lehen hemen ikusi doguna ezta?

LU.m.- Baai!

AB.jm.- Bai

## GEG E

LU.m.- Da hau zein dde?

GO.ma.- Hori nor da ba, nor falta da ba? Tio Jerman

LU.m.- Tio Jerman, ez tauko antzik e? Jesuus! kalbo galanta ta gaur u... ezileike asko ezautu. Hori be makinista primerua da, eh?

AB.jm.- Baita, baita

LU.m.- Nun dao?

AB.jm.- Eta hau?

LU.m.- Hori neu (barre egiten du)

AB.jm.- (Barre egiten du) Hori ez duzu esan, baaa! Danok e... begi argiak, e? daukazue, zuk ere baita

GO.ma.- Danak, danak

LU.m.- Hauxe kapittana

AB.jm.- Aitek ere bai, ezta?

GO.ma.- Bai, bai

AB.jm.- Baita

LU.m.- Hauxe kapittana

AB.jm.- Hauxe kapittana, bai

LU.m.- Bai, nun dao Jerman ba? Islas Canarias

AB.jm.- Hau nun ateratakoa duzue?

LU.m.- Etxien

AB.jm.- Etxien

LU.m.- Baaai!

AB.jm.- Hola...!

GO.ma.- Baña zatike zatike uste dot ezta? Hau zelan eindda dao? Zatike?

LU.m.- Zatike, zatike, bai, da gero etxera etorten zirin da halantxerik ataa, hauxe atara zan urtien hauxe hil, hau etorten e... hau ekarri ebenien orduntxe hill eu... Agustiñ, Anjel, Jerman, Jose Mari, hau Mendixen dao ezkondate

AB.jm.- Ta izenak hauenak nola aukeratuak izan ziren?

LU.m.- Zer?

AB.jm.- Izenak, hauen izenak, nola aukeratu ziñuzten?

GO.ma.- Zelan elejiru zenduzan ixenak? Ixenak, zelan elejiru?

I:  
105-121

**GEG E**

LU.m.- Ba... hau Justina

GO.ma.- Baña zeaitxik Justina

LU.m.- Ba lelengo Josefina halakue... hauxe aittitten besutakue... da amama Gregoriñe, da amama hamengoixie Josefina ixeteku, da gero Santa Justina, hor zen da hori...

GO.ma.- Kalendarijjue?

LU.m.- Kalendarijjun ikusitte, Justina. Da hau... (argazkia bere eskuetan duela ari zaigu argibideak ematen) honek nor eban amabitxi? aittitte Mendixako, da amama hemengoxie, honek amabitxi ta aittabitxi

GO.ma.- Baña ixena zeaitxit Jose Mari?

LU.m.- Jose Mari

GO.ma.- Heurak esaben?

1-4 LU.m.- Ez takitx zelan, haixe pentsau ta haixe ipini. Hau Anjel, honeri... Tia Paskula eban hori... amabitxi, ta aitabitxi nor dau honek?, tio Julian, ez, honek badaki nor daben, Prantzi Errotabarrikua eztau honek?

GO.ma.- Ez taki nik

LU.m.- Baietz pentseten dot, da tia Paskula honek pentseten dot... holantxerik ba

AB.jm.- Ederki

LU.m.- Familijja ederra ez ta ala?

AB.jm.- Bai, bai. Eta argazki oso ederra da. Oso ederra. Da ondo... e, antolauta ta, neska bakarra hor erdian jarri...

LU.m.- Baaai!

AB.jm.- Alaba bakarra

LU.m.- Makiña bat bihar ein dda jjun zen hori be!

GO.ma.- Da zaharrena

AB.jm.- Da zaharrena bera...

GO.ma.- Bai

LU.m.- Berau zaharrena, hiruroeta hiru urte daukoz, familije ederra dauko, bat Donostien dauko kolokaute semie, ta... alabie nun dao, Mari Tere ha Allustian, hor... lehin hamar urte eon zan, Markiñen kolekijjuen lelengo, gero hamar urtin eon zan... Lekitton, tiok topautzan lekue ta... ofiziñan, lobie, da gero eon da biharrik parik, da on Allustiar ostarabe, kolokaude, mueblerijja barrijen, baakixu nun dauen Allustian mueblerijje?

VI:  
1-26

## GEG E

AB.jm.- Allusti... honbeste ez dakit, Allusti nun dagon badakit, ibilita nago, baña hoinbeste ez takit, eliza ta... plaza ta... taberna bat edo beste ta... baña hortik aurrera, gutxi gora behera bai zean e...

LU.m.- Horren ama be Allustin...

AB.jm.- Zean bidean...

LU.m.- Horren ama be Allustin de...

AB.jm.- Nola du izena e... Santa Eufemia bidean ezta? piska bat

GO.ma.-Ez hori dago e... sarreran Allustiko sarreran (ez da entzuten ondo)

AB.jm.- A, sarreran dago

GO.ma.- Bai

LU.m.- Lehin e...

AB.jm.- Urteeran ere badago o... zerreri edo...

GO.ma.- Bai zerreri bai baña ez ke hau da muebleria bat

AB.jm.- Bai, bai, ez orduan

LU.m.- Holantxerik

1-4 AB.jm.- Da hemen orduan ezkondu... honea ezkondu ziñen? da harrezkeo beti hemen

LU.m.- Bai, hementxe, nora jjungo nitzan ba?

AB.jm.- Muztin

LU.m.- Biharra ta biharra ta biharra ta beti pobre

AB.jm.- Hori da. Bueno aberats zaude zu oraindik

LU.m.- Neu aberatsa? (barre egiten du)

AB.jm.- Ikusi, ikusi hemen ondiobe neska gazte

LU.m.- Bai

AB.jm.- Larogeita hamar, hamaika urte egiteko

LU.m.- Hamaika urte eitteko

AB.jm.- Hemen e...

I:  
105-121 LU.m.- Horrek burla eitte euste niri baña (bere bilobagatik esaten dit)... baña esaten dotset, aaaaai... baator be heuron-tzako be etorriko da

AB.jm.- Bizi bagea, bizi bagea, hori ez takiu ta. Hemen orduan e... hainbat denboran bizi izan zarenean Lekeitiora eta...

**GEG E**

LU.m.- Hon o... automobillaaz jjuden da, leñ astuaaz

AB.jm.- Lehen astoaz

LU.m.- Bai

AB.jm.- Da zertaa juaten ziñeten, zuek?

LU.m.- Esnie, arrautzak, eta aldan guztie, saldu te...

AB.jm.- Astean e...

LU.m.- Eunin, eunien

AB.jm.- Egunean, egunian

LU.m.- Onbe horren ama (bilobaren ama) eunin eunian jjuden da automobillaz, hon automobilla, hiru automobil daz

AB.jm.- Lehenao dena astoaz?

LU.m.- Astue ta burue

AB.jm.- Astoa ta...

LU.m.- Buruen

AB.jm.- A, buruen, buruen...

LU.m.- Kargie (barre egiten du)

AB.jm.- Hori da

LU.m.- Da bedarra be buruen edo lepuen da on... karga bat lepun hartu bez, tratoraaz

AB.jm.- Baita, baita

LU.m.- Jjun da gero karruaaz

I: 31-33 AB.jm.- Eta bakarrik emakumezkoak joaten ziñeten? Egu-  
122-133 nero... Lekeitiora?

LU.m.- Ordun... u... Gixaburutik eta Amototik eta... kuadrilla, kuadrilla, jjuden zirian. On iñor ez ta jjuden, fabriketan edo sartun da jentie ta, baserriajak itxi askok

GO.ma.- Baña andra hutsek?

LU.m.- E?

GO.ma.- Andra hutsek?

AB.jm.- Andra hutsek?

LU.m.- On gixonezkuk jjuden dira esnikin be

AB.jm.- Da lehin, lehin gixonezkuk?

LU.m.- Pentsau bez

AB.jm.- Pentsau bez? hola... ganadukin eta bakarrik edo...

## GEG E

LU.m.- Etxin gixonezkuk eta andrazkuk u... astukin, kuadrilla kuadrillan kontuk esan da... ederto etxera (barre egiten du)

AB.jm.- Kontu asko esaten ziñuzten?

LU.m.- Ni sarri ez nitzen ixen, e, lelen koñatia euki neban da gero... alabia osterabe ta... baña, emakumik kontu beti dauko, guzur edo egi (barre egiten du)

VIII:  
141-163

AB.jm.- Esaerak eta hola badakizkizu?

LU.m.- Nik ez takitt esaerarik

AB.jm.- Zuk kantuk ez ta?

GO.ma.- Esaerak, antxiñako esakerak...

LU.m.- Zeueri esateutsuaz nik

GO.ma.- Ba esan

LU.m.- Zer esangotzu pa?

GO.ma.- Zelan da... e... "Ondo eñ dden pagu..."

LU.m.- "Ondo eñ dden pague, ate onduen palue"

AB.jm.- Horrek zer nahi du esan?

LU.m.- Mesede eitten dotsut nik zuri, baña gero, ez toztazu pagetan, palu gero! Hori entendiruo zu on?

AB.jm.- Ate ondun palu?

LU.m.- Bai. "Ondo ein dden pague, ate onduun palue"

AB.jm.- Hori da, orduan mesede ein eta, ordaindu ez ta?

LU.m.- Ordaindu ta...

AB.jm.- Beste mesede batekin

LU.m.- Bapez, bestik zertzuk tiz esaten dittuazanak? Honeri esaten doutziaz nik

AB.jm.- Hoiiek noiz esaten dituzu?

LU.m.- Ba... lantzin (barre egiten du) hasarratuten garinin da... ia ba!

AB.jm.- Eta hemen e... Oletan beste iñor hola ezagutu ahal dezu, ipuinak eta lehengo gauzak kontatzen eta...

GO.ma.- Prantzi

LU.m.- Bai, Prantzi on burua halakotute dau

GO.ma.- Prantzik, jakin badakiz baña ez taunai esan

LU.m.- Ai, ez taunai esan?

**GEG E**

AB.jm.- Zein da Prantzi?

GO.ma.- Prantzi

LU.m.- Neure gixonen lengusua, ta larogeta lau urte, hontxe hospittalian eon da Bilbon

AB.jm.- Zure gizonaren

LU.m.- Lengusu da

AB.jm.- Ta harrek ipuiñ asko...

LU.m.- Baña...

AB.jm.- Baña lehin ipuin asko ahal zekizi?

LU.m.- Bertsuk harek!

AB.jm.- Prantzi, da nola da apilledue?

LU.m.- Harek e... horrena, aitte Amillaku zan

GO.ma.- Foruria?

LU.m.- Foruria, Gabiola bigarrena

AB.jm.- Foruria Gabiola

LU.m.- Baña hareana ezin leike jjun on, ha... urteten dau on kanpora?

GO.ma.- Ez, (ez da entzuten ondo) altzau eitxen da baña...

AB.jm.- Da beak zer lan egin izan du?

LU.m.- Baserrijen bere bixi guztian

AB.jm.- Eta baserriko lana bakarrik?

LU.m.- Baai, kantaran da aloberin ibiliko zan baña... mendijjen azpigarri ebaten da...

AB.jm.- Zer eramaten?

III 31-33 LU.m.- Azpigarrije ez takixu zer dan?

AB.jm.- Bai

LU.m.- Basuan ganaduari azpira botatekue...

AB.jm.- Bai

LU.m.- Basun dao...

AB.jm.- Aspigarrixe

LU.m.- Baai, da basun dao on usteldute, baña hartu tratotarra ta ekarri zerrautse... zerratik pagaute.. da hon haixe botaten jjako, pentsauxu lehiñ aldin zelan bixi den jentia

AB.jm.- Da hemen lehen mendian jendea ez zan ibiltzen lanean?



## GEG E

LU.m.- Baaai!

AB.jm.- Zein lan klasetan?

LU.m.- Azpigarrijje ebaten, horrixek irak ebaten da...

AB.jm.- Beste zer lan klase gehiagotan?

LU.m.- Zer eitte eben ba basun? Otie ta... egurre ta... on egurre barik butanue...

GO.ma.- Da karie? karie

LU.m.- Zer?

GO.ma.- Karie

LU.m.- Karie? karie hori de... ze esaten jjako berari... sua ein dda erreten zana zan karie...

GO.ma.- Da horretan be ibiltzen zan jentie

LU.m.- Baña zer esaten jako?

GO.ma.- Karobijje?

- 31-33 LU.m.- Karobijjak, lehin eitte zirin, arrijak atara, pillau, pentsau antxiñako mundu zelaku zen, da karabijjak eindde karia zoluari botateko ta, on o... ekarri abonue han a... nitrato de amoniaco

VIII:  
20-38

AB.jm.- Ederki, ta lehen... kantatu dittuzu hor e... zeran e... Mendixako elizan ikasitako latiñezko gauzak eta...

LU.m.- Bai, elixakuk eta, bai

AB.jm.- Edo esan dituzu, ezta?

LU.m.- Salba Rejina ta, hontxe be kantaten dot nik Salba Regina ta...

AB.jm.- Ea, beste bat bota, Salba Rejina edo nahi dezuna

LU.m.- Nik zer esangotzut pa?

AB.jm.- Hola, abadea edo ikusitakoan e... saludoik egiten zenuten?

LU.m.- Guk abadia euki... abadiak e... ene! Lehiñ abadiak errespeto handijja eukitte eban, gixonak be txapela altaute, on eztok eta baidok

AB.jm.- E... orain eztok eta baidok, eta andrek? ze errespetu klase?

LU.m.- Andrak han a... Jesus!, e, ba pentsau be, trumoi zanin (barre egiten du) honek ingoittu burlek honek entzun de, e? (niregatik esaten du hori)

GEG E

AB.jm.- Ezetz Maria...

LU.m.- E?

AB.jm.- Ezetz, ez, burlarik ez tago, ezetz Maria...

LU.m.- Trumoié, lehena letañak eoten zirian mendijjetara

AB.jm.- Mmmm

LU.m.- Da... elixatik urteten zanién, konjjurua badakixu zer dan?

AB.jm.-...

LU.m.- Konjurua edo eitxe zan, elixako atin plantata abadik eitte eban, danak atzeko partin plantaute, da... zoluen, artuk eta unedak eukitten dabez, koku, on botikia dao ta ezta eoten baña... kokounedak eta, pentsaubez zelan e... antziñako jentia, da abadiari zeozer emoten jjakon... da konjjurua, konjurua eitte eban zolora etorritte

AB.jm.- Da nola etortzen zan jantzita?

LU.m.- Ai, ez taki nik, baña zolora etorritte konjurua eitte eban, da zeozer paaten jjakon, da siñistu haixe be sorgiñek ebixena be... siñistu eitte eben da...

AB.jm.- Baña orduan danak siñiste eitte eben?

LU.m.- Entzun be. Horrek sorgiñek zek kendu ebazan baakixu?

AB.jm.- Zek?

LU.m.- Eidarrek

AB.jm.- Nola?

LU.m.- Eskopetak ei bezelako. Ez tau entendirú

AB.jm.- Ez, hori esan berriz

LU.m.- (Barre egiten du)

GO.ma.- Benga, esplikau ba?

LU.m.- Sorgiñ ibiltten zirin ezta?, da jenti siñistute ikaratute eoten zan, baña gero... pixkat halakotu zanién jentie... danba botate eban, da sorgiñi pez

AB.jm.- Aaaa!

LU.m.- On entendiduozu?

AB.jm.- Bai, on bai

LU.m.- Antxiñako sorgiñek Eibarrek

AB.jm.- Garbitu zitula

## GEG E

LU.m.- Garbitu zittula, hori esakeri da, e?

AB.jm.- (Barre egiten du)

LU.m.- Geure albur be bai, Mendixen be, nik alde ezker  
be sorgiñek, siñistute ganera, aiaiai!

GO.ma.- Zelan eitte ezan sorgiñe?

LU.m.- Bai, edozer eitte eban harek

GO.ma.- Baña zer, zertzuk, zeaitxik eitxe eban hori?

AB.jm.- Nor zan hori, bere izena nola zan?

LU.m.- Ondiño bixi da ha andrie

AB.jm.- Nola da bere izena?

LU.m.- Neska bat ibili zen sorgiñ eindde (Telefonoak jotzen du han). Telefonue

AB.jm.- A!

GO.ma.- Nor?

- 18-29 LU.m.- Sorgiñ eindde, geure etxeku ta be siñistute! Edozer harek eitte eban, edozer, etxeko guztik aurrin, bera zan a bigarren ezkontunikuna ta berak eukazan bere mandamentuek, da... Mundekan euen sogiña iarte ebana, eixeuen e, nik ez takitt, da haraxe be jjutekun da, siñistute ta, da gero... berak harrijek gorde ta, botata ta... sorgiñen, ames-sorgiñek eta ta, haretzek be siñistuta jentie, da egun baten txalak eka- rri ebezen honaxe, karnazerijjara eruteko, beizarrak edo... honaxe, da...

AB.jm.- Oletara?

LU.m.- Oletara Mendixatik eta, etorri zirin geurera... ba denpora zantarra eun de, gabeko hamabijjak arte ez tatorrela automobile ta, da konbertsaziñoie atara eban da, Mendixako sorgiñe... zelan dabillen, da geure ahizti ta be siñistute e... ikaratute ta, da goiz baten e... esan neutzan ze... entzuxu... beti sorgiñek, neu ixan bertan Domun Santuruk eitten, antxiña baakixu, Domun Santurutan jjutun zan, baakixu zer dan Domun Santuru? San Mendijje lelengu eune, San Mendijje ez taki honek zer dan, noviembre, Uno de Noviembre, Todos los Santos.

AB.jm.- A bai! bai, bai

LU.m.- Los difuntos

AB.jm.- Bai, bai

VIII:  
20-38

**GEG E**

- VIII: 5-14 LU.m.- Bueno difuntun mezak ataraten zirin da neu jjun ni-  
62-140 tzen, da niri esan ez, da jjakin neuk, haretxe esan, zelan dabi-  
xen, da geure etxekuk be haulantxerik daoze la ikaratute ta...  
ole txokau jkatan, esan neutzan ze... entzuxu ahizta hildde  
daonari esan neutzan, sorgiñek ei dabix hor Mendixen da,  
nok esan dotzu, hori... pekatua esaten da baña pektarija ez,  
da... aaai iñusentiori da... esan neutzen da, orduntxe kittu!  
iari eitzenien
- AB.jm.- Da esan dezu oraindik bizi dela emakume hori ezta?
- LU.m.- A bai! Nun bixi da on, Bilbon urrin ezta?
- AB.jm.- Bere izena nola da?
- LU. m.- Zer zan, zer zan berena? Ez takixu Arrasteko Sabur-  
diñe nor dan?
- GO.ma.- Bai, baña nik eztakitx nor dan, zueri entzunda bai  
baña...
- LU.m.- Harek alabak eta ondo ezkontute ta daukoz...
- GO.ma.- Baña nik ez tot ezautzen
- LU.m.- Etxat akordauten niri
- AB.jm.- Zein baserrikoa?
- LU.m.- Neu jajjotaetxin alboko partekua
- GO.ma.- Arraste
- LU.m.- E?
- GO.ma.- Arraste
- LU.m.- Arraste
- AB.jm.- Arraste
- LU.m.- Baaai!
- AB.jm.- Baserrikoa bai
- 31-33 LU.m.- Da siñistute jente guztia eon zan gero, e? pentsau  
zelako... antxiñakuk zerun daoze, abarka ta guzti, gaurkuk  
zapatakiñ be eztiz jjungo, baña antxiñako zaharrak abarka ta  
guzti zerun daoze, koittaduk. Pentsau e, siñistu horretxe gau-  
zok!
- AB.jm.- Zuk zer, horrek ere siñistuko ziñuzten txikitan?
- LU.m.- Ez, nik... ni horrek baño...
- AB.jm.- Hala ez?
- LU.m.- Mmmm... sorgiñek eta... antxiñe eitte ebazanak,  
zoluko arik soseau ezin dabixen mutillek aria alkarrenganin

## GEG E

ipinitta, ipinitte eitte ebazen gabetan, baakixu ezin zirin soseaute ebixenak eta, da sorgiñek dabixela ta...

I: 5-14 GO.ma.- Ama, ze, ze eitzun zuri amak eun baten e... gauza  
105-121 bat esatiarren, ez zara akordetan? Monjak e... explikaten...

III LU.m.- Aaaa, nik hartu neban belarrijen ondokue, hontxen be miñ hartzen dot. Ahizta bat gu Bilbon euki gendun krijjara, Madriden be bai, harek eitte eutsan gure amari prente, ezta? Madrileko kontuk eta... esan da, da hor eun baten e... petroliua argijje ta kaltzerdi eitten bageutzon, da gure amak hori esaten, maijjatzeko liburuk zertzuk daukazan, abade bat erreberentzi eñ ezabalako kondenu ein zala, ipuiñak esaten geuri, ta monja batek inportantzi gehijjeijjaaz arpeijja garbitu ebalako kondenu ein zala, da... “nok ikusi ebazan ba?” esan dot, jjoten nau belarrijen onduen, ontxen be miñ hartzen dot (Barre egiten du)

AB.jm.- (Barre egiten du)

LU.m.- Hori egijje da, gero, e? Geure ahiztik be aldete eban lantzin behiñ ondotik, hak Bilbon zertzuk ikuste ebazan esate eban... nun eon zan bera? Paskualitonin eon zan, Lekittoko Paskualitonin eon zan ha. Leku bittan be eon zan ha, Madri- len be bai, harek gure aldin i... gauza asko eukan ikusitte, “eu”... esate eutzon “horrek iñuzentekerijjok”

AB.jm.- Hori, nork esan dezu?

LU.m.- Neure ahiztik amari, “euuu... horrek iñuzentekerij- jok, horrek halan da honan da ta...” eitte eutson baña bestik alde (barre egiten du). Holantxerik

VIII: AB.jm.- Eta Lekeition eskola ibili ziñen monjatan...

11-19

LU.m.- Baaai!

AB.jm.- Han ikasitako zerbait gogoratzen ahal duzu?

LU.m.- Monja bat gaiztu euki gendun, Sor Mikaela hamaika honako... (bere eskubiko ukabilaz bere buru gaina jotzen du, bi edo hiru aldiz)

AB.jm.- Hamaika buruko?

LU.m.- Holan jjoten eban “da, da, da” kaltzerdi ein dde ezin puntu jjausitte, ezin dde

AB.jm.- Baña han ikasi puntuk eta holako gauzak

LU.m.- Puntuk eta.. gantxillun da... bordetan be bai tte.. puntillak eitten be bai tte...

AB.jm.- Neska guztiok, ezta?

**GEG E**

LU.m.- Ba, bakotxak bere biharrik eitte ebezen, beste batzuk o... da apur bat neuk pe ikasi neban gero, e? *Red*, sarie, baakixu zer dan itxasoko sarie?

AB.jm.- Bai, bai

LU.m.- Antxiñan despiskan eitten zan sarie eoten zan da, da eitte eban, ekarte eben sarie, da monjik kentzeutson zatitxu bat da sartzen eben... igual igual bere lantxe barrijje, ikesten

AB.jm.- Bai

31-33 LU.m.- Batzuk... beste batzuk, beste gauza batzuk eta, da antxiñen beste gauza batzuk be bai, onbe telebisiñoian iñoiz ikusi dot palillukin puntillia eitten, iñoiz ikusi dozu, Andaluzijjan edo eitten diz horrek

AB.jm.- Mm...

LU.m.- Halakoixik eitten be bai, eitte eben

AB.jm.- Baita, baita

LU.m.- Harek koittaduk, danak taoz hildde

VIII:  
39-55

AB.jm.- Ta Mendixen e... tabernaik eta ba zan?

LU.m.- Bat, onbe bat paño ez tao ta

AB.jm.- Orain dagoen...

LU.m.- Bat on be

AB.jm.- Bat, bai, han e... plazan ezta? plazan dago Mendi-xan

LU.m.- Bai, bai, bai, haixe bat

AB.jm.- Bai, bat, da lehin ere haixe zan?

31-33 LU.m.- Ez e... honaku ez gero, tabernie, lehin zar zar zar zarra zan ha

AB.jm.- De nortzuk joaten zien?

LU.m.- Ba, lantzin behiñ ardautan da, asunberdi ardau edo... da holantxerik eta... lehiñ ezeuan ezer tabernan, nire gomuntan, nor eon zan tabernan? Tia Anjela ta hemengoxe aittitten anaijji ta andri be bai, harek Ameriketara jjun zirin, e... ez takixu Anjela ta zelan etorri zirin, Anjelles, Jesusa ta zelan etorri zirin baten? ziñera jjun zirila gero ta... aitten lengusiñe?

GO.ma.- A, bai!

LU.m.- Haretxen ama ta aitte be bai eon zirin

AB.jm.- Egunero... zabalik egoten zan?

**GEG E**

- LU.m.- Baaai, da gixonak lantzin i... baso bete arda, txiki-  
torik ezeuan ordun
- AB.jm.- Da zein ordutan edo izaten zan?
- VIII:  
39-55 LU.m.- Ah! Nik ez tai nik. Guk urrun eukaun da... ardaue  
San Pedrutan, San Pedruk dire fiestak. Agostun lelengue,  
San Pedro Mendixakue, gabonetan da... bestela ikusi bez,  
saardaue etxin eindde
- AB.jm.- Saardaue?
- LU.m.- Saardaue, bai
- AB.jm.- Ure, saardaue...
- LU.m.- Ur saardaue ta ure
- AB.jm.- Bai
- LU.m.- Holantxerik
- AB.jm.- Ederki, ederki
- 31-33 LU.m.- Ta zu, on baño sanuao euan ordun gero e? jentia  
asko be, da zeu nungu zara ba? preguntu da hori e?
- AB.jm.- Bai, ez, ez, oso ondo. Ni giputxe, hori badakizu,  
eta.. Ataungoa, Gipuzkoan
- LU.m.- lñoiz entzun dot Ataun
- AB.jm.- Beasain entzun dozu?
- VIII:  
politika LU.m.- Bai, Beasain lengunin, guardi zibilla ez eben hill?  
Ez, Ohiartzunen
- AB.jm.- Ohiartzunen, bai
- LU.m.- Bai
- AB.jm.- Bueno, guardia zibilla ez
- LU.m.- Ai, ETaku zan hillebena?
- AB.jm.- Bai, bai
- LU.m.- Ah! Ez tot entendiruten ondo ta...
- AB.jm.- E... bai, Beasaiñen, gero Ordizia, Billafranka, ba  
hortxe ingurun, Lazkau, hortxe ingurun dagoen herri txiki  
bat
- 18-29 LU.m.- Ni Arantzazun da ixanda nao sarritten, Arantzazun  
be bai, Loiolan be bai hiru edo lau bider, honek be bai pasan  
domekan ala aurrekuen, aurrekun bodie eben Loiolan
- AB.jm.- Eta kanporago izan zara?
- GO.ma.- Lurdesen

**GEG E**

LU.m.- Lurdesen be bai, gixona ta bijjok

AB.jm.- Urrutiago?

LU.m.- Bilbon

GO.ma.- Santanderren ez ziñen ixen?

LU.m.- Ez, ez, eskursiñoien? ame ixan zan ni barik zuekiñ, exkursiñoi ni sarritten, on jubilaueu baskarijja jjaten be bai sarritten, Riojan da...

AB.jm.- Baita, baita, baita

LU.m.- Holantxerik, baña on iñora bez

AB.jm.- Ederki, ederki

LU.m.- Deitzen dabenin Kanpo Santure

VIII:  
39-55

AB.jm.- Da zuk lehin hemen e... billobak emandako kaseta hortan, kantatutako abesti hoiiek txikitari ikasitakoak direla esan duzu, ezta? hor lehen...

LU.m.- Honek kantok lehin kanta dodazanak?

AB.jm.- Bai, bai

18-29 LU.m.- Horrek, erromerijja eukitten gendun domeketan, gero? Piskat hazi, hamalau urteaz, da zaharrauek eitte eben, baña orduan iñor be ez zan jjuten inora, Lekittora bez da iñora bez, erromerijja eitxen zan elixaldien

AB.jm.- Han e... zean e...?

LU.m.- Mendixen

AB.jm.- Mendejan, bai

LU.m.- Mendixa baño onatzatxuago kurutze bat dao, harrizko bat

AB.jm.- Nola du izena?

LU.m.- Kurutze bat tao

AB.jm.- Bai

LU.m.- Da hantxe eitten zan erromerijje, da hantxe neska ta mutil, da araxe batun jentie, da holantxerik, da gu umik albokaldien

AB.jm.- Hori domeketan ezta?

LU.m.- Baaai, asteunin pentsau bez!

AB.jm.- Arratsalde domeketan?

LU.m.- Bezperak amaittutakun

AB.jm.- Bezperak amaittutakun



## GEG E

LU.m.- Argirik ez euen orduen

AB.jm.- Bai

LU.m.- Etxera illundu takun

AB.jm.- Da han ikasitako kantuak die?

LU.m.- Baaai!

AB.jm.- Denak buruz ikasitakok?

LU.m.- Hau ona dauket nik (eta bere eskubiko eskuaz buru-  
gaina ikutzen du).

AB.jm.- Ikusten da

LU.m.- Baña hau ez (eta bere ezkerreko eskuaz iztarra iku-  
tzen du)

AB.jm.- Eta hori... kantatzen nortzuk ibiltzen zien?

LU.m.- Ba... lantzin bat panderu jjote eban da

AB.jm.- Bertakok?

LU.m.- Baai, neuk pe bai tte...

AB.jm.- Danak bertakok

LU.m.- Danak bertakuk

AB.jm.- Danak bertakuk, kanpokoik ez

LU.m.- Ez

AB.jm.- Danak bertakuk

LU.m.- Bai

AB.jm.- Da holan ikasi ziñuzten?

LU.m.- Baaai!

AB.jm.- Orain e... gaur bukatzeko, holako bat kantatu eza-  
zu, bat bakarrik, nahiko, nahi duzuna

LU.m.- Zer esan dau? (bere bilobari galdetu dio)

GO.ma.- Kantateko bat

LU.m.- Zein kantako pa?

GO.ma.- Ba... nahizun bet

LU.m.- Ia esan zeuk zer

GO.ma.- Ez, zeuk pentsau

AB.jm.- Zeuk nahi duzuna Maria, bat bakarrik

GO.ma.- Benga...

**GEG E**

LU.m.- “Maitia maite zaitut, zeuk halan banozu, bijjok ixango gara gara banozu”

AB.jm.- Horixe bera

LU.m.- E?

AB.jm.- Horixe bera

VIII:  
39-55

LU.m.- (Abestu egiten du)  
Maitia maite zaitut,  
zeuk halan banozu  
Maitia maite zaitut,  
zeuk halan banozu  
bijjok ixango gara  
zeuk gure banozu  
Ai, ai, ai,  
zeuk gure banozu  
Maitia maite zaitut,  
zeuk halan banozu  
AIBA!

AB.jm.- Ederki, ederki

LU.m.- (Barre egiten du)

AB.jm.- Oso ondo gainera

LU.m.- Honek ein bidotxuz burlak! (nigatik ari da esaten)

AB.jm.- Ez, ez

LU.m.- (Ez da entzuten ondo)

AB.jm.- Ez, ez, Maria, ezta horren burlarik, ezta!

LU.m.- (Barre egiten du)

AB.jm.- Oso ondo, bueno gaurko saio honekiñ e... bukatzen deu

LU.m.- Bai, bai

AB.jm.- Beste baten e... saio...

LU.m.- Ezta komeni, honek gogaitt eindda dao gero

AB.jm.- (Barre egiten du) Gogait einda badaude ba... hor konpon, zuk aurrera, e, zuk aurrera. Ederki ba

LU.m.- Bueno

AB.jm.- Beste baten ingo degu saio bat

LU.m.- Baai.

## BIBLIOGRAFIA

APALATEGI BEGIRISTAIN, Joxemartin

- 1984 “Herri Arrantzaleen Etnografia eta Antropologia Soziokulturala. Ondarru”, *Bermeo 4*, Bermeo: Udala
- 1985 “Euskal Herriko Lurrerrien Etnografia eta Antropologia Soziokulturala. Ataun -Aia- Agirre Josemarirekin Elkarrizketan” *Aingeru Irigarai In Memoriam*, Donostia: Eusko Ikaskuntza
- 1985 “Arrantzale Herien Etnografia eta Antropologia. Adibidez: Euskal Herrian - Etnografía y Antropología de los Pueblos Pesqueros. Un Ejemplo: Euskal Herria”, *Actas del Coloquio de Etnografía Marítima de Santiago de Compostela, 20-22 Setembre 1984*”, Santiago de Compostela: Museo Do Pobo Galego

BARANDIARAN, J.M.

- 1893 “Guía para una encuesta etnográfica (1975) -Galdeketa etnografiko batetarako gidaliburua”, 203-319, *Obras Completas 21*, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca
- 1984 “Apéndice a la encuesta «Etniker»”, 222-227, *Euskaldunak - La Etnia Vasca 4*, Donostia: Etor